



Usurbilgo Udala

## **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO MARTXOAREN 30EAN GOIZEKO 08:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Itziar Basterrika Unanue.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ez dira bertaratu:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2021/03/09.**

Batzarkideek, 2021eko martxoaren 9ko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Itziar Basterrika abstenitu egin da ez zelako bilkuran egon eta gainontzekoek aldeko botoa eman dute.

### **2.- HASIZ HAZI BEKA ETA LOKAL HUTSEN DIRULAGUNTZA OINARRIETAKO ALDAKETAREN BERRI EMATEA.**

2021eko martxoaren 9ko Tokiko Gobernu Batzarrak, beste batzuren artean, bi dirulaguntza hauei dagozkien oinarriak onartu zituen:

- Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duten ekintzaileentzat dirulaguntza oinarriak.
- 2021erako Hasiz Hazi bekaren oinarriak.

Bi oinarrietan aipatzen zen ebazpenak bi epetan emango zirela:

Lehen ebazpena: 2021ko apirilaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena.

Bigarren ebazpena: 2021eko irailaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena.

Orain, ordea, egokiagoa ikusten da lehen ebazpena izatea 2021eko maiatzaren 31era arte aurkeztu diren eskariena.

Beraz, ebazpenak bi epe hauetan emango dira:

Lehen ebazpena: 2021ko maiatzak 31 arte aurkeztu dituzten eskariena.



Usurbilgo Udala

Bigarren ebazpena: 2021eko irailaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107.22 EXEKUZIO UNITATEKO URBANIZAZIO PROIEKTUA HASIERAZ ONARTZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0043

IDOIA UDABE PAGOLA andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.11 Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektua aurkeztu du dagokion izapidetza izan dezan.

Urbanizazio Proiektua ALD ingenería, arquitectura y equipamiento, s.l.p taldeko, Gurutze Aldanondo Barandiaran arkitektoak eta Igor Aldanon Barandiaran industri ingeniariak idatzi dute 2017ko irailean.

#### TXOSTEN TEKNIKOAK

Udal arkitektoak eta udal apajeadoreak ALDEKO txostenak eman dituzte. Hala ere udal aparejadoreak, Ariadne Etxetxikia Barbero andereak, 2021eko martxoaren 23an emandako txostenean honela dio hitzez hitz:

Konprobatu daiteke obra amaieran aurreko guztia bete dela eta ondorioz TXOSTENA ALDEKOA dela, honako baldintzarekin: 2021-841 erregistro zenbakiarekin egindako sarreran azaltzen duten itxitura eraiki beharko dute, hau da, landarezko hesiaz edo hormigoi armatuzko muretearekin  $h= 50\text{zm}$  eta  $z=15 \text{ zm}$  duena. Gainera, metalezko ziridun itxituraz edo material berbereko diseinuaz, haren gehieniko altuera behe solairukoena izanik. Itxitura landarezko elementuez osa daiteke.

#### LEGE-TXOSTENA

Udal idazkariak, Garazi Etxeberria andereak, honako lege txostena eman du:

#### **LEGE-TXOSTENA**

**GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.11 Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiekturen haserako onarpena**

#### **1.- AURREKARIAK**

IDOIA UDABE PAGOLA andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.11 Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektua aurkeztu du dagokion izapidetza izan dezan.



Usurbilgo Udala

Txosten honen xedea, ikuspegi juridiko batetik, Urbanizazio Proiektua aztertzea da.

## **2.- DOKUMENTUAREN OSAKETA ETA GAIAREN AZTERKETA**

**Lurzorua eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30ko 2/2006 Legeak, 194.1. art.k** xedatzen duenaren arabera:

“Urbanizatzeko obren xehetasun teknikoak definitzen dituzten obra-proiektuak dira, hain zuzen, **urbanizazio-proiektuak**. Zehaztasunez idatziko dira, hain justu idazleak barik beste teknikari batek zuzenduta egikaritu ahal izateko adinako zehaztasunez”.

Urbanizazio-Proiektuak honako **eduki** hau izan behar du **ekainaren 30ko 2/2006 legearen, 194.3. art.aren** arabera:

“[...] Urbanizatze-proiektuak formalizatzerakoan, gauza hauek aztertuko dira: obren ezaugarriak deskribatzen dituen txostena, proiektu- eta xehetasun-planoak, neurketak, aurrekontua, eta obra eta zerbitzuen baldintzen agiria; eta, horiez gain, beharrezko diren segurtasun- eta kalitate-azterketak, -programak eta -planak”.

Aurkeztutako dokumentuak printzipioz legediak xedatzen dituen osagarriak ditu.

## **3.- IZAPIDETZA**

**Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194.2. eta 196.2., 3. ataletan** xedatzen da urbanizatze-proiektuak **izapidetu eta onartzeko prozedura**:

**194.2. art** “Jarduketa integratu batean edozein urbanizatze-lan egiteko, urbanizatze-proiektua egin beharko da, alde aurretik administrazio-onespena emango zaio eta onespren hori lurraldeko aldizkari ofizialean argitaratuko da”.

**196.2. art** “Urbanizatze-proiektuei hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan”.

**196.3. art** “Behin betiko onspena emateko epea bi hilabeteko izango da, hasierako onspena eman ondoren jendaurrean jartzeko epea bukatzen denetik kontatuta. Epe hori ebazpenik eman gabe amaitutakoan, behin betiko onspena administrazioaren isiltasunez eman dela iritziko zaio”.

Beraz, laburbilduz, honako faseetara lotzen da Urbanizazio Proiektuaren onspena:

- Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hasierako onspena ematea [apirilaren 2ko 7/85 legeak 21.1.j) atalean Alkate-Lehendakari ematen dio urbanizazio-proiektuak onartzeko eskumena, baina kontutan izanik 21.3 atalak, beste batzuen artean, eskumen hau eskuordetzea baimentzen duela, ahalmen horren ondorioz Usurbilgo Udalean 2005/1064 Alkatezaren Dekretu bidez eta aipatu legearen 23.2.b) atalak eta bertako erregelamendu organikoaren 7. artikulua xedaturikoa betez, TGBren



Usurbilgo Udala

eskuetan utzi zen eskumen hau].

- Hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jarriko da 20 eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedadura gehien duen/dituen egunkarian/etan argitaratuaz, aztertu eta alegazioak egin ditzan nahi duenak.
- Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin betiko onartu beharko luke urbanizazio proiektua, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak balira, urbanizazio proiektuaren testu bategin berri bat egin beharko litzateke. Testu horri hasierako onspena eman beharko litzaioke eta berriz ere jendaurrean jarri beharko litzateke.
- Behin betiko onspena ematea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio (hasierako onspenerako aipatu arrazoiengatik). Bi hilabeteko epea ezartzen da horretarako, behin TGBk hasierako onspena eman ondoren, jendaurrean jartzeko epea bukatzen denetik kontatzen hasita.
- Behin betiko onspenaren akordioa GAOn argitaratuko da.

Usurbilen, 2021eko martxoak 24  
Udal Idazkariak  
*Garazi Etxeberria San Miguel*

Udal zerbitzu teknikoen txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.11 Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektua hasieraz onartzea udal aparejadoreak bere txostenean zehaztutako baldintzarekin.

**BIGARRENA:** Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunetz, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari ematea.

### **4.- ETXEBESTE KALEA 11 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0265

MIREN ZUBIMENDI CARRERA andereak, Etxebeste kalea 11 etxean jarritako igogiluaren lehen erabilera baimena eskatu du.

### AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko maiatzaren 29an, Etxebeste kalea 11 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: <b>26.880,83 €</b>
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>Guztira: 26.880,83 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 150,00 €
	Fidantza (%120): 180,00 €

#### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, MIREN ZUBIMENDI CARRERA andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio. Hondakinen kudeaketarako fidantzarik ez zela jarri ikusi da.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** Etxebeste kalea 11 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 08:50etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**